NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

ANDEREA MASKARADETAN

GURE AMA LURRA

MASKARADAK XIBEROAN

Xiberoa, Euskalerrian, lurra arrigarria degu. Naiz txikiena izan ta euskalkietan azkena, bere barrengo nortasuna aberatsa du. Ba ditu gauzak, ez daudenak beste probintzietan, adibidez, Maskaradak eta Pastoralak.

Aunameendiko tarte batean sartua degu gure Xiberoa; mendi tontorrak ugari, etxe gallurrak arbelazkoak aldapan, alaitasuna nabari, dantzak txorien jauzien antzekoak eta kanta eztiak askotan bi abotsetan.

Xiberoko Maskaradak, Euskalerriko urtearen berritzea ta gure udaberria dira: dantzarien jauziak gelditzen ez dirala, txirularen txori otsa, irriparra ta dana argiaren oiua bezelakoa.

1972'ko otsaillaren ogeita zazpian IGANDEA ZALA. Maskaradak, Auzuruk'en egokitu ziran. Erri au oso polita degu. Eliza iru mururreko dorrearekin, egi gainean, inguruan illeria, beko aldean jauregia ta ondoan enparantza. Maule'tik berealaxe sartzen da.

Goizeko amarretan Barrikadak egin zituzten. Dantzariak erriko agintariak agurtzera dijoaz; Dantzuluaz agurtzen dituzte.

Dantzariak bi taldetan eratuak daude: gorriak eta beltzak. Gorriak, gizon egokiak, garbi, apain ta zuzen dantzatzen dira. Beltzak, traketx xamarrak, ostopoak ta irriparra egiñazten dute. Zamalzain'eri enbasoa egiten diote.

Amaiketan, erriko Meza, abesti zoragarriekin eta bukaeran, dantzariak jendearen billa urbiltzen dira ta eguerdian plazara Arribada egitera, Enparantan. Moneiak, Antzina Pika, Xorrotxen kantuak ta Bazkaleta, dantzatu zuten.

Atsaldean, iruterdi inguruan asi ziran egitazko lanean ta Maskaradak agertzen. Lendabizi Barrikada egin zuten, gero Muñaina, danak inguruka mutil dantzaren antzera, Zamalzain erdian zegoela ta ogeita bost dantzari inguruan biribillean. Ondotik, Manañe ta Matxalena, emen jostagallu bezela Kerextuak Zamalzaina txikiratzen dute. Gero Braule Jauzia; dantzatzen dira Banderaia, Txerrena, Kantineira, Gatuzaina ta Zamalzaina.

Irrigarrizko garaia dator, bi buhaneak arlotekeriak egiten eta esaten dituzte ta euskeraz ta frantsezez mintzatzen.

Txorrotxak zutik bi abotsetan abestutzen dute ta gero txorrotxa tresna lurrean jarri ondorean, xorroxten ta kantatzen jarraitzen dira.

Gero igitoak (buhaneak) agertzen zaizkigu ta alkar izketan asten dira beren artean.

Ondotik Godelet dantzakin, egitazko jauziak egiten dituzte; edontzi baten inguruan ankak gaiñean jarri arte, zauliak ta azkarrak agertzen dira. Auxe da dantza liraña ta doñu alaia.

Gero kauterak zapelakin datoz. Batek besteari, xiberotar euskaraz esaten dio: "Zuk nun izan zite?" Beltzak farsa bat egiten dute; parra eragiñazteko gaxo bateri ebakuntza egiten dio sendagilleak. Pitxua operatuta, itz auekin bukatzen du sendagilleak bere lana, —sarria obeki—.

Berrik, Godelet dantza egiten dute. Ondoren xiberotar kantiak bi abotsetan ta azkenean jauziak inguruka, biribillean, gazteak ta zarrak, erriko gizonak tartean sartzen direla, urratsak ematen dituzte alde batera, ostera atzera. Erriko lau gizonak pozik beterik oñutzik dantzatzen ziran. Erri baten barrena ta arnasa antxe agertu zuten. Gero inguruetako gaztentzat festa zegoen, toki guztietan bezela. Xiberoko festa guztien piperra Etxahun ta Gate, txirulari ta atabaleroa antxe zeuden, bizitasuna emanaz.

Esan bearra degu Maskaradetan bi eratako gizasemeak azaltzen zaizkigula; batzuek gorriak, egitazko dantzak egiten dituztenak eta beltzak irriparra eragiñazteko. Gorriak ez dira nolanaikoak, bakoitxak bere nortasuna, jantzi berexia, bere lana ta bere zer esan naia du. Txerreroak, zaldien illekin egindako erratza eskuan daramaki. Gathuzainak egurrezko aixturren antzeko tresna bat du. Kantiniera, gizonezko neska, praka ta gona motzekin. Enseinaria, Xiberoko ikurriñarekin. Zamalzain, egurrezko zaldiaren buru antzeko tresnarekin ta buruan lorezko koroia dula. Kukulleruak Zamalzainen laguntzalleak ditugu. Kerestuak, txikiratzalleak dira; maretxalak berriz perratzalleak. Oraindik, Laboraria baserritarra bere emaztearekin ta Jauna beltzez jantzita sonbreruarekin eta emaztea zuriz lurreraiñoko gonakin.

LEN izaten zan ere artza, Arkumea ta Artzaia; auek galdu ziran.

Beltzen artean ba dira: Buhamiak (igitoak), Kauterak, pertza konpontzalleak. Auek ontziak konpontzen dituzte, asarretzen dira, laguntzalle berriari parra egiten diote ta auberñat mintzatzen dute. Txorrotxak zorrozten dabiltz; biarno izkuntza mintzo dira. Sendagillea ba dago ta gaxoari ebakuntza egin ondoren bizia ematen dio.

Goizetik asi ta illunabarraraiño irauten dute Maskaradak. Zer dira?

Zer esan dezakegu itz gutxikin? Gauza asko batean sartuak daudela: erri antzerki soilla, dantzaldi berexia, irripar aldia ta abar. Batean sartuta daukagu gizaldi askotako gizonaren izakera ta bizi bidea, oso antziñako garaietatik asita gaur arte, bai tresnatan, jantzietan, izketan, doñuetan eta abar.

Maskaradetan agertzen dizkiguten zati oien bidez egagutzen ditugu aintziñako garaietako gizonen oiturak, pensakerak eta giroa. Maskaraden bitartez antziñako gizonaren usteak, gaur arte datozkigu. Orregatik, Maskaraden esan naia ta xeetasunak dira, ain aberatsak.

Artzaintza garaiko gizabidea ezagutzen degu. Artzaiak lurgintzan ari dan gizonari parra egiten diote, zaldia txikiratzen ta perratzen dualako. Artzaiak, zaldia osorik dabilki ta gainera burnizko zatarik gabe.

Lurgintza asieraren garai zar aietako bizibidearen xeetasunak ere, nolakoak ziran jakiten ditugu, batez ere ugaritasunaren gurtzarenak. Gizona zaldizko irudiarekin ta buruan koroi bat dula, zerbait garrantzi aundikoa esan nai du. Zaldia garai artan, goiko indarraren ezaugarria bezela agertzen da. Jainkotasunaren indarra ba lu bezela. Ezin degu aztu, Asirian ta Egipton ia beti Jainkotasuna animali gorputza batekin agertzen dutela ta burua gizonezkoa. Gure Zamalzainek gauza berberaren itxura dauka. Zaldia gaiñera ugaritasunaren ezaugarria bezela dago toki askotan artua. Kukulleroak zaldia altxa egiten dute, bere nortasuna danez gain azaltzeko.

Katuzainak, aiz turraren antzeko tresnarekin, batzuek diote, tximistaren ezaugarria dala, euria ekartzen duna ta euriaren bitartez ugaritasuna. Txerreruak berriz, erratzan antzeko gauza batekin, bide garbiketa antzeko gauza bat egiten du, jainkotasunaren aurrean egin bear dana.

Txintxarriak, gaitzak baztertzeko indarra zeukatela, uste zuten. Argi bide auek, geienak ez dira nereak, Violet Alford andere jakintsu ta ospetsuenak baizik.

Erdi Garaiko oiturak ere sartuak daude Maskaradetan. Agertzen dizkiguten esku lan geienak, kauterak, ontzi konpontzalleak, txorrotxak eta abar, arrotzen lanak ziran orduan ta beti Euskalerrian lana oiek eta gizon oien izkuntzak etzeuden ain ondo ikusiak. Orduan parra egin arazteko sartu zituzten ta zerbaitengatik enda ezberdiñekoak.

Gero, alkar izketan joan dan gizaldiko zatiak aipatzen dituzte. Ta antzerkia bezela berria da, dantza zarren ta jantzi arrigarri oien tartean, gaurko gaiak ta izkuntza sartzen dituzte; alkarizketak ez dauka neurririk, batzuetan parra eragiñazteko da, bestetan ikuslekin artu eman motzetan sartzen dira; muga gabe lana egiten dute.

Gaiak oso antziñakoak, usteak oso zarrak, dantza arrigarriak, gure mendietako kantiak ta gainera oso antzerki errikoia, errexa, soilla, alaia ta lasaia. Ori dana batean da Xiberoko Maskarada. Ez da nolanaiko gauza oso aberatsa baizik.

Auzuru'ko erri zoragarri ortara joan giñan bertako dantzariak, Maskaradak egiten zitutelako. Erri au Xiberoan dagoen kristauena daukagu; ortik apaiz ta zerule asko atera dira. Igandetan atsaldero bezperak dituzte. Egizko kristauak badituzu, baita euskaldun jatorrak ere; kalean, aurrak, gazteak ta adiñakoak danak euskeraz.

Aurten gutxinaz, amar erritan egin dituzte Maskaradak ta izan da Xiberoaren berpiztea. Ortaz oartu naiz. Talde egokia degu auzuruk'en. Bestea ba dago berriz Alzai'en. Aurten Maskaradak ez dituzte egin bete bear bat bezela, beren nortasuna ta bereixtasuna agertze arren baizik. Egun ortan ikusten zan garbiro Euskalerria bizi dala ta lo zorroan zegoen Xiberoa esnatu zaigula.

Etxahun ta Gate, txirulari ta atabaleroekin egon giñan. Asarre ta kezkati zeuden. "Nai genuke, Xiberoko dantza garbia azaldu. Ez dira Oldarra ta beste dantzari talde oienak Xiberoko dantzak eta Maskaradak. Nai degu gurea izan dedilla. Gurea guk azaldu bear degu. Len Rumania, Austria eta abar'era joaten giñan. Xibero'ko dantza emen aitxiki da".

Gate'k Alzai'ko taldea prestatu du eta zion; "Egizko dantza xiberotarrak ez genuke nai besteak kentziak. Gure dantzak dira ta ez genuke nai ebatxiki izatea. Esan zuten emengo dantza fini zala. Ez da egie. Len baino geiago degu orain".

Berriak Xiberoko dantzei buruz eskatu ezkero, edo zerbait galdetu ezkero, gogo txarrez erantzuten zuten zuzendariak. Berak, xiberotarrak, Maskaradai buruz idaz lana bat egitekotan omen daude.

Xiberoan zerbait gertatzen ari dala ikusi degu aurten. Maskarada'en bitartez beren nortasuna berexia ta indartsu ortaz oartu dira. Euskalerria zerbait aundia ta aberatsa ta berea dala konturatu dira.

Esan bearra ere, datorren ikastaroan, Maule'n ikastola irikitzekotan dabiltzala. Gaur gauza aundi baten asiera... biar berriz uzta.

Guk Maskaradak ikusten zoragarrizko eguna bat igaro genuen. Ez da arritzekoa. Dantzariak, askotan jauzika, lurra utzita goien, txintxilik bezela zegozten, jantziak arrigarriak dira, antzerkia irrikoia, bizia; abestiak gure iturrietako ura bezin gozoak; alaitasuna neurririk gabekoa ta garbia. Uste gabeko gauza ikusi genuen. Iduri zuan nunbait lurraldi arrotz ta aspaldiko gizaldi batean giñala. Benetan arrigarrizko gauza ta zoragarria, gure eguna. Tamalez eta gure erruz askotan, euskaldunak arrotz izaki Euskalerrian. Gainera aurten Maskarada'en giroa ikusita, oartu gera zerbait garrantzi aundikoa gertatzen ari zala Xiberoan.

LATXAGA

BUHANEAK MASKARADETAN

TXERREROAK MASKARADETAN

JAUZIAK MASKARADETAN

EUSKALERRIAN BARNA

Disko berriak

LIZARRAKO DULTZAINERUAZ izeneko disko berri bat arestin atera zaigu. Bere izenburuak ongi esan nahi duen bezala disko honek Lizarrako Dultzainak jotako soiñurik famatuenak dakarzkigu grabatuak.

Dultzaina taldeak Lizarraga aitak eta bi semeek osatzen dute. Edigsa Etxeak argitara eman du, Iñaki Beobide jaunaren ardurapean eratu da.

Edigsa Etxe berberak beste euskal disko bat atera berri du: ZUBEROA izenekoa. Disko hontan Zuberoko kantu batzuk azaltzen dira, denak herritik diskora eramanak iñork landu eta zuzendu gabean. Zuberoko herri txiki bateko ardotegi batean artzainak, nekazariak, eta herriko beste gainerako jendeak afaltzen direlarik beren kantu, bertsu, eta Zuberoko Folkloreari dagokion guzia disko honek ekarri dizkigu.

Bi disko hauek Euskal Kuturari buruz txit egokiak dira.

Liburu berria

Donostiko LUR euskal Editorialak Etxeberri Sarako zenaren LAN HAUTATUAK izeneko liburua argitara eman digu. Euskal Liburu hau euskal klasiko batena da. Urtean behin LUR Editorialak euskal klasiko baten liburu famatu bat gure eskuetan jartzen digu. Liburu hau luze xamar gertatu da eta bere balioa LUR Editorialaren beste liburuenak baño garestiago da: 100 pezeta suskribidoreentzat eta 200 pezeta liburu dendetan saltzeko.

Beste euskal Meza bat Iruñean

Gure Artxapezpikuak eta apezek gero eta kasu gehiako egiten diote euskerari. Ba zan ordua esan dezakegu. Gure zorionik beroenak ar bitzate denak nere partetik!

Euskal meza barria igande eta besta guzietako arratsaldeko zortzi terdietan Damas Apostolicas deitutako Elizan ematen da.

IKUSLE

»« JEAN ELISSALDE apezaren eskutitza

Gerezietatik, Buruilaren 11 an. 1960

Ustegabeko adichide jauna.

Ez naiz guti harritu atzo Pragatik Irailaren 6 eko zure eskutitza Gerezietako chokorat ethorri zaitalarik. Eskualzaletan nork ez daki segurki Tauer-tar Norbert jaun jakintsun eta langilearen berri, bainan ez nuen den gutienekorik asmatzen ni bezalako langilechka baten entsein ttikieri behatzen ahal ziniotela! Ikusazu beraz zer atsegina ukhan dutan! Milesker eta miletan milesker, jauna, zure hitz maitagarriaz.

Hain chuchen, atzo joan behar izan dut Gerezietako hegal urrunenerat. Bada, mendiari kontra badugu eraikia Ama Birjinaren egoitzatto bat. Garaldako Amari othoitz kartsu bat egin diot balhauniko —Garalda mendiaren izena da— zure chedetarat: zure chede guzi-guzietarat.

Chahartua naiz eta nekhez izan dezaket lurrean zure ezagutzaren egiteko zorion eta ohorerik: Garaldako Amak elgarretara gaitzala zeruan...

Eta berritz ere, uste-gabeko adichkide jauna, milesker: milesker guzietan kartsuena. Hemendik goiti atsegin handienarekin har netzazke zure berriak ausartegia ez banaiz!

Jean Elissalde apheza

"Zerbitzari"

(Karta hau Praga'ko Erakasle, euskaldun berri eta Euskaltzale on dan Norbert Tauer jaunak bidaldu digu euskal orri hontan argitara dezagun. Esker aunitz Tauer jaun biotzez).

Europa haundiko eskualdeak

Europa hitza entzun eskasiarik ez dute, azken urte hauetan, gure belarriak. Bagerala, eta bestean ez; gure salmentak gora, eta gero saltzerik ez; sartzea komeni dela, eta kaltegarri ote den... Nere haur denborako geografian itsasoz mugatua zen hiru aldetatik Europa zaharra, eta lihorrez bestetik; muga berriak sal-erosketako esolez eginak bai dira, ez dakigu Europa geran hala ez.

Baina, Europa ez da diru kontua bakarrik: txakur gosearen ametsak bezala, pasabide ona eta seriostasuna dakarkigu gogora. **Onak gaude gu Europan sartzeko!** esaten dugu denok, arrai usaitua sartzen ba digute dendan. Eta lantegi berriren baten gaurkotasuna adierazteko **"europa-mailan"** dagola esan ohi da. Ez dakit aski konturatzen geran hala ez; zerbait haundi egosten ari zaigu Europa hitzaren inguruan. Egosi ondorean konturatuko gera gure pertzekoa zela.

GIZONA

Bildur naiz diru ta tresneri aldetik gehiago begiratzen ote den Europaren etorkizuna, gizabide aldetik baino. Zer izango da "gizon" deitzen dugun basapisti hontaz Europa berrian? Tramankulu haundiagoko baten txirriketako lokatza? Nortasunik gabeko artaldea?

Aurtengo apirilaren lehenbiziko egunetik eskualdeen jabetasunari bidea eman zaio Italian. Berri hau ez da behar hainbat zabaldu eta argitu gure artean. Etorkizunaren argi izpia izan laike erabaki garraantzitsu hau. Europa haundiaren ametsekin nola uztartu? Eskualde txikien askatasuna ez ote da batasunaren etsai?

Eugenio Gatto da italiarren askatasun ametsa bete duen gizona. Bere esku utzi dute agintariek hogei eskualde hoien jokabide berriari dagokion guzia. Hirurogei urte ditu. Hara zer dion: **"herria, jendeak, agintariengandik gertu egon eta elkarren arteko har emanak sortzea, behar beharrezkoa ikusten da Italian. Agintaria ez da, orduan, huri buruan dagon irrutiko zerbait; aurpegi ezagun bat baizik. Batzun eta besteen ar-emanak jende giroan, konfiantzan, joan daizke eta denek parte hartu dezakete".**

Zapalgarri izan zaiken Europako erresuma baten etorkizunean, bide argi argia piztu digute italiarrak. Beste eurokideak, begi belarri han zer gerta zai daude. Ezin dugu ahaztu eskualdeen arazoak bota zuela De Gaulle. Inoiz baino biziago senditzen du gaurko munduak herrialde guzienganako begiramendua.

Europa berriaren aurpegia agertzen hasi zaigu hodei ilunen artetik. Tresna-burnien pentsabidez ez baino, bihotz giroz eta giza-moldez abiatzen hasia de la esango nuke; eta pozik esan ere. Nortasuna ez da diruz erosten; etxea baino gehiago da gizona eta, ogia baino lehenago bizia. Eskualdeen nortasuna zapaltzen duen Europa bat, txori gabeko oihana edo arrai gabeko ibai pozointsua izango litzake. Arimarik gabeko gaztelu hotza. Askatasunaren urrezko kaiola. Hauxe da, nere ustez, Europa haundiaren izenean egosten ari zaigun lixiba.

J. M. SATRUSTEGI

AXULAR SARIA

KONTUA

Baziren bi gizon bein batean elkar lagunak. Bat zen osasun txarrekua eta bertzia iduriz ona. Osasun txarreko hura gan zuten operatzera ospitalera eta harat allagatu eta gan zuten karro zirrike duen batean kirofanora. Medikue gazte batek eta barberuak han operatzeko lekuen eman zuten indizion bat operatzeko. Operatu zuten buelta batean iretzarri zen, ikusi zuen bere guatze aintzinian operatu zuen medikue gazte hura eta galdetu zion harek:

—Hola zer nodu?

—Bai ni ongi arras.

—Sufrituizu aunitz?—

—Ez nik batre eztut sentiture, arront konten naiz. Zortzi egunen buruan torri zen etxera eta galdin zioten.

—Ta nola?

—O! ni arras ongi, eztut yeus naaitu.

Eta kontatu zion nola gan zuten, zer in zuten, nola kusi zion medikue, zer in zuten eta orduen erraten dio lagunak:

—Bai nik ere aspalditik sentitzen zerbait hementxeik

—Oyoy! zazi, zazi kuskoizu zein ongi eta konten egonzaren.

Egun batean gan zen operatu zuten baño irletzarri zen. Bertziak erran zion bezala etzuen ikusi mediku gazte hura, ikusi zuen bertze gizon zahar buru ta bizar eta erran zion:

—Hauztuk asistiko mediku gazte hura.

Eta erran zion berai:

—Zu etzera aistiko mediku hura?

—Ez ni naiz San Pedro San Pedro.

MARIA ISABEL AGIRRE. ARIZKUN. 10 urte

KONTUA

Lehen omen zen gizon bat andre ttar baten yabe eta elkarrekin pensatu zuten biar zutela merkature gan eta andrea saldu.

Hala yoan ziren biek Elizondora. Emaztia yarri zen apain apana alki baten ganean. Gizona hasi zen oyuka erraten zuen:

—Nork nai du andre ttar bat erosi? Andre ttar bat saltzeko!

Hori aituta erran zion emaztiak:

—Arrayo astoa nork nai dik hola erostea? Ollarra noiz egiten du kukurruku?

—Gezurra erraten duenai.

—Eta zergatik kantatzen du goizeko hiruetan?

—Periodikoak iten ai direlakotz, ordua delakotz.

MANUEL MARITORENA

AMAYUR. 12 urte